

Kirol instalazio eta material aldetik ongi ornituriko bi lerroko eskola bateko Gorputz Heziketako irakaslea zara.

Laugarren mailan begi-esku koordinazioa lantzeko saio bat garatu eta ikas unitate batean testuinguratu behar duzu.

Saio hau garatzeko orduan, honako hauek hartu behar dituzu kontuan:

- 50 minutuko saioa izango da.
- Saioak gutxienez joku kooperatibo bat izango du.
- Arreta Galera eta Hiperaktibitatea (TDAH) duen ikasle bat dago.
- Saio honetan ikasle honek ikaskide bat fisikoki erasotu du. Azaldu gertaera hau nola bideratuko zenukeen.